

gazte informazioaren europako gutuna

Bratislavan (Eslovakiako Errepublika) 2004ko azaroaren 19an Gazteentzako Informazio eta Aholkularitzarako Europako Agentziaren (ERYICA) 15. Batzar Nagusian onartua.

Atarikoak

Gizarte konplexuetan, eta erronkak eta aukerak noiznahi eskaintzen dituen Europa integratu honetan ere bai, gazteentzat gero eta garrantzitsuagoa da informazioa eskuratzea eta informazio hori analizatu eta erabili ahal izatea. Eta eginkizun horretan gazte-informazioak asko lagundu diezaieke gazteei, haien nahiak betetzen eta gizartean parte hartzaile aktibo bihurtzen. Informazio hori eskuratzeak gazteen aukerabideak areagotu egiten ditu eta haien autonomia eta gaitasuna sendotu.

Demokrazia, giza eskubideak eta oinarrizko askatasuna benetan errespetatzeak berekin dakar ezinbestean gazteek informazio osoa, objektiboa, fidagarria eta ulergarria eskura izateko eskubidea, haien zalantzak eta beharrak argitze aldera. Eskubide hori onartuta dago, gainera, hainbat dokumentutan: Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala, Haurren Eskubideen gaineko Hitzarmena, Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak babesteko Europako Hitzarmena, eta Europako Kontseiluaren 7 (90) zenbakiko gomendioa, Europako gazteen informazioari eta aholkularitzari buruzkoa. Eskubide horretan datza, hain zuzen, Europako Batasunak gazte- informazioaren inguruan garatu duen jardunbidea.

Sarrera

Gazte-informazioak, berez, gaztearen interesgune guztiak jorratzen ditu, eta hainbat eta hainbat jarduera jaso ditzake bere baitan: informazioa, aholkularitza, gomendioak, orientabideak, laguntza, trebakuntza eta prestakuntza, sareko lana, eta zerbitzu espezializatueta bidaltzea. Jarduera horiek gazte-informazioko zentron bidez edo bestelako egitura duten gazte- zerbitzuen bidez eskain daitezke, edo, baita ere, prozedura elektronikoen edo antzekoen bitartez. Gutun honetako irizpideek, ahal dela, gazte- informazioaren alorreko edozein moldetan aplikatzekoak izan beharko lukete, herrialdean herrialdeko kalitate-ereduen eta gutxieneko estandarren erreferentzia-gune nagusiak, gazte-politikan ardaizten den gazte- informazioaren ikuspegi bateratzaile, koordinatu eta osoaren elementu gisa.

Irizpideak

Arau hauen helburua gazte-informazioaren lan-ildoak finkatzea da, gazteek informazioa izateko eskubidea bermatzeko.

1. Gazte informazioko gune eta zerbitzuak gazte guztientzat egongo dira zabalik, salbuespenik gabe.
2. Gazte informazioko gune eta zerbitzuetan gazteen arteko berdintasuna sustatuko da informazioa eskuratzeari begira, edozein dela gaztearen kokalekua, jatorria, sexua, erlijioa edo gizarte maila. Arreta berezia eskainiko zaie gutxietsita dauden taldeei, bai eta behar bereziak dituztenei ere.
3. Gazte informazioko gune eta zerbitzuetako sarbideak erosoak izan behar du, aldez aurretik txandarik eskatu behar izan gabe. Erakargarriak eta atseginak izango dira, gazteen beharrezanetara egokitutako ordutegiarekin.
4. Eskuratzen den informazioa gazteen eskakizunak asetzeko modukoa izango da, eta antzematen diren hutsuneak betetzeko adinakoa. Ustez gazteen interesekoak diren alor guztiak jaso beharko ditu, eta sortzen diren gai berriei erantzun egokia eman beharko die.
5. Erabiltzaile bakoitza gizabanako legez hartuko da, eta galdera bakoitzari erantzun pertsonalizatua emango zaio. Horrek guztiak trebatu egingo ditu erabiltzaileak, haien autonomia indartuko du eta informazioa aztertzeko eta erabiltzeko baliabideak emango dizkie.
6. Gazte informazioko zerbitzuak doakoak izango dira.
7. Ematen den informazioa isilpekoa izango da: erabiltzaileen anonimotasuna eta konfidentzialtasuna gordeko dira.
8. Informazioa era profesionalean eskuratuko da, eta berriaz prestatutako langileek emango dute.
9. Informazioa eguneratua, osoa, zehatza, erabilgarria eta erabilerraza izango da.
10. Ahalegin guztiak egingo dira informazioaren objektibotasuna bermatzeko, aniztasuna eta iturrien egiazkotasuna erabiliz.
11. Ematen den informazioak ez du erlijioaren, politikaren, ideologiaren edo merkataritzaren eraginik izango.
12. Gazte informazioko gune eta zerbitzuek ahalegin berezia egingo dute alaitz gazte gehienengana hurbiltzeko. Horretarako, taldeak eta beharrezanak aintzat hartuta, prozedura egokiak eta eraginkorrak erabiliko dituzte, estrategia eta baliabide berritzaileak eta sortzaileak aukeratzuz.
13. Gazteek aukera izango dute gazte informazioaren lan-faseetan modu egokian parte hartzeko, bai euren herrian, eskualdean, herrialdean edo nazioartean. Fase horietan, besteak beste, honakoak jasoko dira: informazio- eskaeraren identifikazioa, informazioa mamitzea eta zabaltzea, zerbitzuak eta informazio proiektuak kudeatzea eta ebaluatzea, eta talde paritarioen jarduerak.
14. Gazte informazioko gune eta zerbitzuak lankidetzan arituko dira gazteen alorreko beste zerbitzu eta erakundeekin batera, batik bat haien eremu geografikoan daudenean, eta sarean egongo dira gazteekin lanean diharduten bitartekariarekin eta gainerako erakundeekin.
15. Gazte informazioko gune eta zerbitzuek laguntza emango diete gazteei, bai informazio-teknologia berrien bidez informazioa eskuratzen bai teknologia horiek erabiltzeko trebatzen ere.
16. Gazte informazioaren lana finantzatzeko erabiltzen diren iturriek ez dute onartuko gutun honetako irizpide guztiak betetzen ez dituen jarduerarik, informazio gune edo zerbitzuetan.

© ERYICA – 2004